


INGURUMENA

KONTU EMATEA

2017/2018

INGURUMENA: KONTU EMATEA 2017/2018

Tolosatzen aurrekontuak urtez-urte



INGURUMENA



3.3 Oria ibaiari begira dagoen Tolosa, programa

3.3.2 SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK EGIN IBAI ETA ERREKEN GARRANTZI EKOLOGIKOA BALIOAN JARTZEKO

3.3.3 ERREKEN IBILGUAK ETA ERTZAK ZAINTEKO PLANIFIKAZIOA EGIN ETA GARATU HERRITARREKIN ETA BESTE ERAKUNDEEKIN ELKARLANEAN

3.5 Kontsumo arduratsua eta hondakinen kudeaketa eredugarria, programa

3.5.1 HERRITARREI ZUZENDUTAKO KONTSUMO ARDURATSU ETA OSASUNTSUAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK EGIN

3.5.2 HONDAKINEN KUDEAKETAN AURRERA EGIN HOBEKUNTZAK EZARRIZ ETA SENTSIBILIZAZIOA INDARTUZ EKONOMIA ZIRKULARRA LORTZEKO BIDEAN

3.6 Biodibertsitatea bizi-kalitatearen oinarri, programa

3.6.1 TOLOSAK DUEN LANDA EREMU ETA EKOSISTEMA ABERATS ETA BALIOTSUAK ZAINDU ETA ABERASTU LURREN KUDEAKETA EGOKI BAT EGINEZ ETA KUSTODIA HITZARMENAK INDARTUZ

3.6.2 HIRI BARNEKO BIODIBERTSITATEA ETA AZPIEGITURA BERDEEN AZTERKETA EGIN, KONEKTIBITATE EKOLOGIKOA SUSTATUZ

3.7 Klima aldaketari aurre egin eta egokitzen jakingo duen herria, programa

3.7.2 ENERGIA-KONTSUMO ARDURATSU ETA ERAGINKORRA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATU BIZITEGIETAN ETA HIRUGARREN SEKTOREAN

3.7.3 KLIMA ALDAKETAREN ERAGINEZ UDALERRIAN EMAN DAITEZKEEN INPAKTUETARA AURREA HARTU ETA EGOKITZAPENERAKO BEHARREZKO NEURRIAK ZEHAZTU

3.9 Ingurumen kalitatea eta giro osasuntsua sustatzea, programa

3.9.1 SOINU KUTSADURA GUTXITZEKO PLANGINTZA ETA JARDUERAK EGIN

3.9.2 PERTSONEN OSASUNEAN ERAGINA IZAN DEZAKETEN INGURUMEN ARRISKUEN KONTROLA EGIN ETA INGURUMEN KALITATEARI BURUZKO INFORMAZIOA EMAN

3.3 ORIA IBAIARI BEGIRA DAGOEN TOLOSA, PROGRAMA



Ekintzak

3.3.2 SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK EGIN IBAI ETA ERREKEN GARRANTZI EKOLOGIKOA BALIOAN JARTZEKO

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Oria ibaian aurkitu ditzakegun espezie esanguratsuenen gida bat egin.
- Ibilbide gidatuak antolatu ibaiaren biodibertsitatea ezagutzeko.


2017

- Hegaztien Gida egin eta erakusketa Zerkausin.
- Izokin kumeeen askatzea GFA-rekin elkarlanean.

2018

- Martxoaren 15ean Usabal kiroldegian kokatu den erakusketa, Ura agentzia eta Konfederazio Hidrografikoarekin.
- Oria ibaiaren interpretaziorako 5 panelak berritu dira.

Betetze maila



3.3 ORIA IBAIARI BEGIRA DAGOEN TOLOSA, PROGRAMA



Ekintzak

3.3.3 ERREKEN IBILGUAK ETA ERTZAK ZAINTEKO PLANIFIKAZIOA EGIN ETA GARATU HERRITARREKIN ETA BESTE ERAKUNDEEKIN ELKARLANEAN

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Ura agentziarekin erreken inguruko urteroko plangintza egin.
- Landare inbaditzaileak kentzeko eta ibai ertzetako habitata berreskuratzeko jarduerak egin.
- Ibaietatik hondakinak ateratzeko jarduerak egin urtero herritar eta elkarteekin elkarlanean.


2017

- Martxoan erreken garbiketa ikastetxeekin, herriko elkarteekin eta Belarmendirekin.
- Ur agentziak eta Tolosaldea Garatzenek, Aranzadirekin elkarlanean landare inbaditzaileak kentzen ibili dira. Ur agentziak Olarraingo eremuan ibaiaren bazter bat berreskuratzeko asmoa du.

2018

- Martxoan erreken garbiketa ikastetxeekin, herriko elkarteekin eta Belarmendirekin.
- Ur agentziaren, Tolosaldea Garatzenek eta Aranzadirekin elkarlanean landare inbaditzaileak kentzen eta bertako landareak landatzen ibili gera.

Betetze maila



3.5 KONTSUMO ARDURATSUA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA EREDUGARRIA, PROGRAMA



Ekintzak

3.5.1 HERRITARREI ZUZENDUTAKO KONTSUMO ARDURATSU ETA OSASUNTSUAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK EGIN

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Urtero kontsumo arduratsu eta osasuntsuaren inguruko kanpaina bat egin.


2017

- Emausek gidatutako 'Trasteak berrerabiliz, oroitzapen berriak eraiki' hondakinen birziklapenaren eta berrerabilpenaren inguruko erakusketa ibiltaria Alhondigan.
- Urteroko kanpaina TIZen eskutik Gabonak eta kontsumoa eta gabonetako apaingarri jasangarriak ekimena.

2018

- Eskola komunitateak EA21 proiektuaren barruan Ingurumenaren Nazioarteko Eguneko leloarekin bat eginez, 'Planeta bat #plastikorikgabe', plastikoaren arazoaz jabetzeko panel-mural bat osatu du.
- Urteroko kanpaina TIZen eskutik Gabonak eta kontsumoa eta gabonetako apaingarri jasangarriak ekimena.

Betetze maila



3.5 KONTSUMO ARDURATSUA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA EREDUGARRIA, PROGRAMA



Ekintzak

3.5.2 HONDAKINEN KUDEAKETAN AURRERA EGIN HOBEKUNTZAK EZARRIZ ETA SENTSIBILIZAZIOA INDARTUZ EKONOMIA ZIRKULARRA LORTZEKO BIDEAN

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Urtero hondakinen prebentzioa eta birziklatzearen inguruko kanpaina edo ekimen bat egin.


2017

- 2017n Hondakinen inguruko kanpainak Mankomunitateak bideratu ditu.
- Bestalde Papera eta ontzi arinentzako 44 edukiontzi berri ezarri dira, birziklatzea errazteko asmoz eta hornitzaile berezientzako 45 litroko edukiontzi berriak erosi dira.

2018

- Iñauterietan ere birziklatu, berrerabili eta zaborra gutxitzeko asmoz kontzientziazio kanpaina egin da. Herria garbi mantentzea guztion lana den mezua zabaltzen garbiketa-langileekin batera bideo bat sortu da.
- 'ZAINDU TOLOSA' garbiketa kanpaina. Herria garbia mantentzeko sentimendua bultzatzeko asmoz, Kontenedoreetan eta zaborrontzietan pegatinak jartzeaz gain herrian identifikatuak dituen hiru arazo nagusiei buruzko bideoak egin dira: animalien gorozkiak, edukiontzietatik kanpo dauden poltsak eta goxokien hondakina.

Betetze maila



3.6 BIODIBERTSITATEA BIZI-KALITATEAREN OINARRI, PROGRAMA



Ekintzak

3.6.1 TOLOSAK DUEN LANDA EREMU ETA EKOSISTEMA ABERATS ETA BALIOTSUAK ZAINDU ETA ABERASTU LURREN KUDEAKETA EGOKI BAT EGINEZ ETA KUSTODIA HITZARMENAK INDARTUZ

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Kontserbazio ikuspuntu batetik lur zaintzailetza edo kustodia hitzarmenak zabaldu eremu gehiagoetara.


2017

- Aranzadi elkartearekin elkarlan bat abiatu da, Elosegi parkean hegaztientzako behatoki bat ezartzeko asmoarekin.
- Uzturreko eremuan berreskuratze lanak aurrera darraite. Aurten Auzolandegiak burutu dira bainuen eremua berreskuratze eta herritar talde batek auzolanean dihardu Miserikordia Zaharreko eremua txukunduz.

2018

- Zuhaitz Egunean ikasleekin zuhaitz landaketa burutu da Elosegi parkean.
- Hegaztientzako jantoki eta begiratokia ezarri ditu Udalak Elosegi parkean Aranzadirekin elkarlanean.
- Elosegi Parkean Udalak ezarritako hegaztientzako jantoki eta begiratokia ezagutarazteko tailerra burutu da.
- Auzolandegi eta herritarren auzolanari esker, Miserikordia Zaharra zeneko lurretan hainbat eraberritze lan burutu dira: putzuetatik hasita bidexka bat egin da beherago dagoen beste putzu eta iturburu batera. Miserikordia zaharreko atsedenekua berreskuratu da eta San Ignazio baserriaren egitura azalratzea da helburu ere. Inaugurazio ekitaldia antolatu da.

Betetze maila



3.6 BIODIBERTSITATEA BIZI-KALITATEAREN OINARRI, PROGRAMA



Ekintzak

3.6.2 HIRI BARNEKO BIODIBERTSITATEA ETA AZPIEGITURA BERDEEN AZTERKETA EGIN, KONEKTIBITATE EKOLOGIKOA SUSTATUZ

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Tolosako azpiegitura berdeen mapa egin.
- Tolosako herri gunean dauden ekosistemen azterketa egin eta hauen arteko konektibitatea aztertu

2018

- Tolosako ekosistemen gida lantzen ari da. Egileak: Alberto Luengo eta Xabier Mendarte.

Betetze maila

2018

% 25

3.7 KLIMA ALDAKETARI AURRE EGIN ETA EGOKITZEN JAKINGO DUEN HERRIA, PROGRAMA



Ekintzak

3.7.2 ENERGIA-KONTSUMO ARDURATSU ETA ERAGINKORRA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATU BIZITEGIETAN ETA HIRUGARREN SEKTOREAN

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Alderdi bioklimatikoak integratu eta bultzatu etxebizitza berriak egiterakoan.
- Leiho zaharren berrikuntza, kristal bikoitzekoa leihoak jarritz eta inguruko arotzeria berrituz.
- Eraikuntzen kanpo egituren birgaikuntza, material isolatzailea jarritz.
- Etxebizitzetan, kondentsazio galdarak instalatu.
- Etxebizitzetan, erregaiaren aldaketa, gasoliotik gas naturalera.
- Balbula termostatikoak ipini erradiadoreetan.
- Barne temperatura mugatu, udan ezingo da temperatura 26°C-tik eta neguan 21°C baino altuagoa izan.
- Kontsumo baxudun lanparen instalazioa.
- Tresna elektronikoak erosteko orduan, energia eraginkortasun irizpideak barneratu.
- Ekintza honek Alkateen Itunaren 34, 35, 36, 37, 38, 39, 40, 41, 42 eta 56, 57, 59 eta 59 ekintzak barne hartzen ditu.


2017

- 2017an, Tolosaldeko energia mahairen bitartez kanpaina desberdinak egin dira.
- Abenduan Energia Azoka ospatuko da.

2018

- Bizikleta aparkaleku sarea hobetu da.
- Hiribusa doan larunbatean, irailak 22, Mugikortasunaren Astearekin bat eginez.
- Tolosako Udaltzaingoak bide heziketa garatu du eskoletan.
- Tolosaldea Garatzen agentzia, GFA eta Ibarako udalarekin batera Tolosa eta Ibarra arteko bizikleta bira ospatu da.

Betetze maila



3.7 KLIMA ALDAKETARI AURRE EGIN ETA EGOKITZEN JAKINGO DUEN HERRIA, PROGRAMA



Ekintzak

3.7.3 KLIMA ALDAKETAREN ERAGINEZ UDALERRIAN EMAN DAITEZKEEN INPAKTUETARA AURREA HARTU ETA EGOKITZAPENERAKO BEHARREZKO NEURRIAK ZEHAZTU

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Klima aldaketarako udalerriko egokitzapen Plana egin.
- Klima aldaketarako egokitze planeko jarduerak burutu.

2018

- Tecnum eta lhoberekin elkarlanean Klima aldaketari egokitzeko eta erresilientzia hobetzeko gida lantzen hasi gara.

Betetze maila

2018

% 25

3.9 INGURUMEN KALITATEA ETA GIRO OSASUNTSUA SUSTATZEA, PROGRAMA



Ekintzak

3.9.1 SOINU KUTSADURA GUTXITZEKO PLANGINTZA ETA JARDUERAK EGIN

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Egin berri den Tolosako Soinu Mapan oinarrituz, soinu kutsadura gutxitzeko plangintza edo jarduera konkretuak egin.

2017-2018

- Aurten Tolosako Soinu mapa egin da. Datozen urteetan lan honetan oinarritutako ekintzak garatu beharko dira.

Betetze maila

2017-2018

% 25

3.9 INGURUMEN KALITATEA ETA GIRO OSASUNTSUA SUSTATZEA, PROGRAMA



Ekintzak

3.9.2 PERTSONEN OSASUNEAN ERAGINA IZAN DEZAKETEN INGURUMEN ARRISKUEN KONTROLA EGIN ETA INGURUMEN KALITATEARI BURUZKO INFORMAZIOA EMAN

Ekintzen garapena ebaluatzeko erreferentziazko jarduera:

- Ingurumenaren kalitateari buruzko informazioa eskura jarri, udal web gunearen bitartez. Gutxienez airearen kalitatea, ibai eta erreken uraren kalitatea eta lur kutsatuen inguruko informazio eguneratua agertuz.

2017-2018

- 2017n Tolosako Bisorea garatu da. Bertan Ingurumen alorreko informazioa eskuratu daiteke, uren kalitatea, airearen kalitatea eta beste adierazle batzuei buruz.

Betetze maila

2017-2018

% 25